



OINHERRI:

Xedeak eta elkarlanerako ildo eta proposamena
lantzeko herrieekin bilera

EGUNA: azaroak 30, larunbata

ORDUA: 10:15 - 13:00

TOKIA: Arrasateko Kultureteko areto nagusia

BILDUTAKOAK

OINHERRIKO TALDE ERAGILETIK

Irati TABAKALERA, Idoia URTXINTXA BIZKAIA, Amaia TXATXILIPURDI, Joxe Mari HIK HASI, Joxe Mari IRRIEN LAGUNAK, Aritz AISIOLA, Jokin TTAKUN, Txusma PLISTI PLASTA, Ibon ARREMANITZ.

HERRIETATIK

Durango, Mutriku, Bergara, Asteasu, Usurbil, Orio, Ibarra, Zumaia, Zestoa, Azpeitia, Oñati, Dima, Ordizia, Zaldibia, Hernani, Aiaraldea.

1. AURKEZPENA ETA KOKAPENA

Herriei jada aurrez azaldutako dokumentua gogoratzearekin ekin genion bilerari, hitzarmen eredia aztertuz. Honen aurrean hiru galdera luzatu genituen:

- *Hitzarmen eredia balekoa da?*
- *Ekarpen ekonomikoa: neurrikoa? egoki ikusten da?*
- *Zerbaitek zalantzarik sortzen du?*

JASOTAKOAK

Orokorrean hitzarmen eredia balekotzat hartzen da, herriak saretzeak eta Oinherriren txapelaren pean egoteak herri hezitzaileen ekimenari koherentzia ematen diola azalduz. Aldi berean, sarearen baitan kokatzea ere baliabidetzat hartzen da, herriko eragileak sartzeko zein herrien arteko esperientziak trukatzeko.

Ekarpen ekonomikoari dagokionean egokia ikusten da eta herriak denboraz dabilzala diote bai aurrekontuetan sartzeko edota beste partidaren batean kokatzeko.

2. ESPEKTATIBAK JASOTZEA

Bigarren ariketak gerturatu diren herrietako ordezkariak Oinherrirekiko dituzten espektatibak jasotzea izan zuen helburu, hauek, herriak egindako ibilbidearen arabera hiru mailatan kokatuz

JASOTAKOAK

MOREA: INFORMAZIOA JASOTZERA NATOR

- Aiaraldean: Faktoria kooperatiba. Aiaraldean 9 udalerrri (4 Araban eta 5 Bizkaian, 24 herri). Oinherriekin elkarlanean eskualdean sartzeko ordezkaritza lana egiteko prest.
- Bergara: ideiak jaso, martxan jartzeko bultzada.
- Asteasu: egiten ditugun ekintzei markoa jarriko dio honek. Aurreratzean ere beste betaurrekoak jarriko dizkio.
- Zaldibia: Informazioa jasotzea, besteen esperientziak ezagutzea.
- Orio: interesa izugarria, udal gobernutik lehenatasuna emateko asmoz, baina hastapenetan.
- Zumaia: informazioa jaso, hasteko oinarria, nondik abiatu behar.

LARANJA: HERRIAN IDEIA BATZUK DAUZKAGU

- Durango: aholkularitza; elkarlana; elkarrekin ikastea; taldearen bultzada.
- Oñati: entzutera etorri gara, Oñati herri hezitzaile bihurtzeko eman beharreko urratsak identifikatzeko. Proiektuak baditugu baina txapela falta da.
- Mutriku: sarea, konpartitzeko, ikasteko.
- Ibarra: informazioa jaso eta beste herrien esperientziarekin ea bat egiten dugun, proiektuan talde eragileak bateratu, hauen koordinaketa.
- Hernani: saretu eta norabidea zehaztu.

BERDEA: PROIEKTU BAT DAUKAGU, ZERBAITETAN ARI GARA

- Dima: aholkularitza (herria, talde motorra, eragileak...), saretzea.
 - Ordizia: Laguntza eta inspirazioa (aholkularitza sarean).
 - Zestoa: perspektiba falta, aholkularitza, Arremanitzekin urteetako hitzarmena
 - Usurbil: Praktika onak jaso, arazoak ezagutu. HAPOaren lanketa eta parte hartze prozesuak egin ditugu haurrekin. Hezkuntza mahaia daukagu eta eskola kirolean eta aisiaren lanketan hasita gaude.
 - Azpeitia: informatu, ikasi, ideiak... (ezagutza kolektiboa). Oinherri parte zuzenean izateko, kolektiboaren parte. Gure herritik Euskal Herrira salto. Indarrak batu, indartsuago.
-

3. BEHARRAK JASOTZEA

Aurreko ariketan hiru mailatan kokatu ostean, ariketaren bigarren zati honetan herriak behar hauen arabera kokatu ziren, Oinherrirekiko dituzten espektatibak, interesak eta beharrak elkarbanatuz.

AHOLKULARITZA

- Nola eta nondik hasi? Norabidean jarri, hasierako pausuetan aholkularitza
- Oinherri (liberatuak) bidelagun funtzioa bete beharko luke, herriaren errealitatea ezagutu eta bertara egokitutako aholkularitza eginez. Kontuan hartuta herri bakoitzak errealitate ezberdina duenez beharrak ere ezberdinak izango direla. Behar hauen arabera izan behar da aholkularitza. Tokian tokiko testuingurua kontuan izanik proposamen ezberdinak egitea.
- Egun herrian martxan dauden proiektuetarako aholkularitza. Martxan dauden ekintzei nola eman jarraikortasuna?
- Egitasmoak, proiektuak aztertzeko kanpo begirada bat, egitasmoei ikuspegi orokor bat emateko aholkularitza

FORMAZIOA

- Formazioa: Herrietan markoan kokatzen hasteko jardunaldi edo topaketa antzekoak bideratu, hasitako herrien esperientziak entzuteko edo partekatzeke aukera sortuz adibidez.

MARKO TEORIKO, TXAPELA JARTZEA

- Marko teorikoa ematea, testuinguru bat, txapel bat
- Herrietan sortzen diren ekintza/egitasmo berriei herri hezitzailearen betaurrekoetatik begiratzeko interesa.

HEZKUNTZA PLAZARA ZABALTZEA

- Hezkuntza herrietan erdigunean jartzeko beharra
- Hezkuntza beste esparru batzuetara eramatea

SARETZEA

- Hasieratik denona izan daitekeen zerbait sortzeko beharra.
- ESPERIENTZIEN ARTEKO LOTURA/SARETZEA BIDERATU: Oinherri esperientzia ezberdinekin hartu emanean dagoenez, esperientzia bakoitzaren ezaugarri eta errealitatea kontuan izanda parekoak direnen arteko harreman eta loturak erraztu. **BESTE HERRIETAN DAUDEN ERAGILE ETA ESPERIENTZIEKIN SARETZEKO** bidea erraztea.



- HERRIKO GAINONTZEKO HERRITAR ETA ERAGILEEKIN SARETZKO edo haiengana heltzeko laguntza edo aholkularitza.
 - Ikastetxeen arteko elkarlana sustatzeko beharra
 - Hezkuntzatik eragileen arteko elkarlana sustatzea
 - Konplizitatea nola bihurtu ekimen? hezkuntza kontseilua, guraso elkarteak...
 - Norabidea, herri hezitzailea bultzatzeko, eragileak nola ekarri parte hartzera?

BEHAR KONKRETUAK

- Talde motorra osatzen duten 3 eragile nagusien parte hartzea indartzea.
- Talde motorraren funtzionamendua eta antolamendua sendotzea eta fintzea.
- Norabide berria eta lan ildo batzuk finkatzea da behar dutena.
- Bestetik, egun martxan dituzten proiektuetarako, praktikarako instrumentuak behar dituzte.
- Aniztasunaren kudeaketa egitea, baina ikuspegi positibotik.
- Antolatzen diren ekimenetan haurren begirada txertatzea.
- Gazte eta haurren ikuspuntua nola txertatu.
- Bestetik, partehartzea umeen ikuspegitik ondo nola artikulatu eta gauzatzeko laguntza eskertuko lukete.

KEZKAK

- Kezka sortzen du eragile eta norbanakoen sareteak.
 - Nola iritsi jendearengana? Nola inplikatu jendea?
 - Nola saretu herriko eragileak?
 - Nola lortu planteatzen dena eskolatik haragoko zerbait dela? Zentzu honetan herriko eragile ezberdinak nola saretu?

4. ITXIERA eta HURRENGO URRATSAK

Itxiera gisa Oinherriren nahia azaldu zen, sare bat osatu nahi dela, hasieratik herriein batera eginez. Honez gain, hurbildutako herriein hitzarmena sinatuz gero Oinherri pertsona bat liberatzeko moduan egongo litzateke.

Oinherrik hartzen dituen etxerako lanak:

- Oinherriko talde eragileak bilerako ondorioak aztertuko ditugu.
- Dauden aukerak kontutan hartuta proposamen bat egingo dugu eta herriei itzuliko diegu.
- Martxoan amaiera aldean herrien arteko beste topaketa bat egin nahi genuke, sarea martxan jartzeko abiapuntu izango dena.

